


2022

GARIZUMA

NERABEZARO AURREKO ALDIA



Bilboko
Elizbarrutia
DIÓCESIS DE BILBAO



Bat gara, partitimos camino

Cuaresma 2022 Garizuma

"Por una Iglesia sinodal: comunión, participación y misión"

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

SARRERA

Lagungarri hauen bitartez, hainbat kontu argitu nahi diegu gure gaztetxoei:

- Gure elkarten nondik norakoak. ELKARTEA
- Sinodo-senaren ingurukoak. ELKARREKIN BIDE EGIN
- Gauzatzearen ingurukoak. NOLA EGIN...

Hauxe da Garizuma-aldiari ekiteko egin nahi dizuegun proposamena: elkarrekin bide egin dezagula, #Batgara izanik eta Berri Ona iragartzen jarraitzeko Elizarentzat denok garela ezinbesteko sentituz.

Eliza, gure parrokia, Nazareteko Jesusek erakutsi zigun bidea bat eginik egiten duen familia handia da.

Lehenik eta behin, Elizako, gure parrokia elkarte edo pastoral barrutiko kide nor den jakin eta ezagutu egingo dugu.

Bigarrenik, gure herri/auzoa eta parrokia/pastoral barrutia Elizbarrutiaren mapan kokatuko dugu.



JARDUERAREN GARAPENA

1. *“Pinguino, inurri eta karramarroen talde-lana”*¹ bideoa ikusiko dugu.



BIDEOA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN ALA
ESKANEATU QR KODEA



- Gehien gustatu zaiena azaltzeaz batera, bidelagun diren pertsonen balio eta ezaugarriak aipatuko dituzte.

2. Parrokian, Pastoral Barrutian, adin guztietako pertsonak elkartzen gara eta elkarrekin bidean goaz, bizitzako hainbat une garrantzitsutan bidelagun izanik.


- Parrokiaren irudia, Elizbarrutiaren mapan kokatu (I. eranskinean).
- Ondoren, parrokian edo pastoral barrutian ezagutzen dituzten taldeak, egitasmoak eta pertsonak aipatuko dituzte. (II. eranskina). (Aldez aurretik, begiraleak presta dezala parrokiako edo pastoral barrutiko talde, egitasmo eta pertsonen izenen zerrenda: familia katekesia, gaztetxo/jaunartze osteko katekesia, eskaut taldea, gazteen taldeak, osasun pastoraltza, familia pastoraltza, Caritas, ekonomia, Liturgiarako taldea, e.a...).

¹ <https://www.youtube.com/watch?v=S5QruCHANww>

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ

3. Ideiak nabarmendu:

- Elkarrekin bidea egiten dugu.
- Denok gara ezinbesteko.
- Bakoitzaren ekarpenak guztiok aberasten gaitu.
- Jesusi lotuta gaude.



4. 1 Kor 12, 12-17 ebanjelioko pasartea irakurri (III. eranskina), edo “*Somos miembros de un mismo cuerpo*”² bideoa ikusiko dugu.



BIDEOA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN ALA
ESKANEATU QR KODEA




AUTOMOBILAREN DINAMIKA

Gure gorputzak ondo funtzionatzeko atal guztiak ezinbesteko dituen bezala, gure parrokiak osatzen duten talde guztien esku-hartzea ezinbesteko du aurrera egiteko eta bere izaera sendotzeko. Parrokian dauden taldeak aipatu berri ditugu. Ikus dezagun orain zein garrantzitsu diren.

Begiak itxi eta automobila irudikatuko dugu. Ikusten duzu?

Lau gupil ditu, motorra, argiak, karrozeria, irratia, bolantea, palanka, e.a. Lehen aipatutako talde eta pertsona bakoitza automobil horren atal dela irudikatuko dugu orain



Automobila marraztu eta pieza bakoitzaren izena jarriko dugu (IV. eranskina).

- Automobilaren zein atal izango litzateke gure taldea?
- Nor izan daiteke gidatzen gaituen bolantea?
- Eta istripuetatik babesten gaituen karrozeria?
- Zein atal litzateke parrokoa?
- Eta azken galdera: Jesus, gure automobilaren zein atal da?
- Pieza guztiak ote dira ezinbesteko?
- Zer gertatuko litzateke piezaren bat kenduko bagenu?
- Ondo ezagutzen dituzue gure parrokia osatzen duten taldeak?

² <https://www.youtube.com/watch?v=Y8xkwgQd7CE>

BAT GARA, ELKARREKIN BIDE EGINEZ



AMAITZEKO: POLIEDROA

Batera jarri eta ikasi dutenarekin, gure parrokia elkartearen poliedroa eratuko dugu.

- Taldekideei poliedroaren orri bana eman (V. eranskina, kartulinaran fotokopiatu).
- Poliedroaren aurpegi bakoitzean, parrokia osatzen duten talde, mugimendu edo pertsonen izena idatziko dute.
- Poliedroa egiten duten bitartean, En Tol Sarmientoren *"Aukera berriak"*³ abestia ikusi eta entzun daiteke.



BIDEOA IKUSTEKO,
KLIKATU IRUDIAN ALA
ESKANEATU QR KODEA



- Poliedroa hilabete honetako familia ospakizunean aurkez daiteke.



OTOITZA

Denok batera esango dugu, ...

JAUNA, NAHI DITUZU NIRE ESQUAK
BEHAR DITUZTEN POBRE ETA GAIXOEI LAGUNTZEKO?
JAUNA, HONA HEMEN NIRE ESQUAK.
JAUNA, NAHI DITUZU NIRE OINAK
ADISKIDEREN BAT BEHAR DUTENENGANA ERAMAN NAZATEN?
JAUNA, HONA HEMEN NIRE OINAK.
JAUNA, NAHI DUZU NIRE AHOTSA
ZURE MAITASUNEZKO HITZA BEHAR DUTENEKIN HITZ EGIN DEZADAN?
JAUNA, HONA HEMEN NIREA AHOTSA.
JAUNA, NAHI DUZU NIRE BIHOTZA
DENAK, INOR KANPOAN UTZI GABE, MAITA DITZADAN?
JAUNA, HONA HEMEN NIRE BIHOTZA".



KONPROMISOA

Konpromiso txiki bat hartuko dugu Garizuma-aldian betetzeko, ...


- gaztetxoek taldeak parrokiako talderen bat ezagutzeko konpromisoa har dezala eta delako talde horrek azal diezaiela nor diren, zer egiten duten, e.a...

I. ERANSKINA



I. IRUDIA

II. IRUDIA



II. ERANSKINA

GURE PARROKIA/PASTORAL BARRUTIKO TALDE, EGITASMO ETA PERTSONAK



III. ERANSKINA

I KOR 12, 12-27



Gorputzak, bat izan arren, atal asko ditu, baina atal guztiek, asko izan arren, gorputz bat osatzen dute. Gauza bera gertatzen da Kristorekin ere.

Gu guztiok, judu nahiz jentil, esklabo nahiz libre, Espiritu bat beraz izan gara bataiatuak, gorputz bat bakarra egiteko, eta guztioi Espiritu bat bera isuri zaigu. Gorputza, izan ere, ez du atal bakarrak osatzen, askok baizik.

Oinak «Eskua ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena» esango balu, ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Eta belarriak «Begia ez naizenez gero, ez naiz gorputzarena» esango balu, ez lioke horregatik gorputzarena izateari utziko. Gorputz guztia begi balitz, non entzumena? Eta dena belarri balitz, non usaimena? Baina Jainkoak bere tokia jarri zion atal bakoitzari gorputzean, berak nahi bezala. Denak atal bat balira, zer-nolakoa izango litzateke gorputz hori? Baina ez, atalak asko dira; gorputza, ordea, bat bakarra. Begiak ez diezaioke eskuari esan: «Ez dut zure beharrik»; ezta buruak ere oinei: «Ez dut zuen beharrik».

Aitzitik, makalenak iruditzen zaizkigun gorputz-atalak beharrezkoenak dira; eta duintasunik gutxieneko iruditzen zaizkigunak, itzal eta begirune handienaz inguratzen eta zaintzen ditugu. Izan ere, berez ohoragarri direnek ez dute arreta horien beharrik. Jainkoak berak, gorputza eratzean, berez ohore gabeko ziren atalei ohorerik handiena eman zien. Horrela, gorputzean zatiketarik ez dago eta atal guztiak bata besteaz arduratzen dira. Honela, atal batek min duenean, min dute atal guztiek berarekin; eta atal bat onetsia denean, poza dute beste guztiek berarekin. Zuek Kristoren gorputz zarete, eta zuetako bakoitza gorputz horren atal.

IV. ERANSKINA

